

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Hortxe, bada, «iraultza demokratikoa»

Ezker abertzaleak Abian eztabaidarako egin-dako txostenak, beste askoren artean, “prozesu demokratiko iraultzailea” eta “iraultza demokratikoa” kontzeptuak jaso zituen. Ohi denez, estrategia txostenek paperean azaltzen dutena egiazki errealitatean zertan gauzatuko ote litzatekeen irudikatzea ez da ariketa erraza, ez horixe. Hitz handi asko erabili ohi da horrelakoe-tan, baina, esaerak dioen moduan, paperak edozeri eus-ten dio. Beste gauza bat da hori bera errealitatera eramatea. Oraingoan, orde, hitz horien esanahi osoa, bete-betea ikusi ahal izan dugu, etxetik oso hurbil, Ka-talunian. Euskaldun askok eta askok beratik bertara bizi izan zuten erreferendumaren eguna. Hortxe da, bada, “prozesu demokratiko iraultzaile” bat, egoera errotik al-datzeke asmoarekin mar-txan jarri zena eta aurrera egin duena, izugarri aurre-ratu dena. Igandean izan ge-nuen “iraultza demokrati-ko” baten agerraldi aparta.

Ez da inolaz ere txiripaz lortu den zerbait. Denbora luzez landutakoa izan da, pazientziarekin, intelligen-tzia politikoarekin, kontrae-sanak kudeatzeko gaitasu-narekin... Bidea egin beharra dago, eta bidea egiteko urra-tsak egin behar dira. Euskal Herrian “bigarren frontea” ireki behar dela esate hutsak ez du halakorik ekarriko, Kataluniakoa adibide paregabea izan arren. Oinarriak finkatu eta baldintzak sortu behar dira.

LEZIOAK, ATZERA ETA AUERRERA BEGIRA

Ezker abertzaleak estrategia aldatu ostean bazirudien ziklo berriarekin prozesu demokratiko bati ekin ahalko zitzaiola Euskal Herrian. Ez zen horrela gertatu, esta-tuek ezarritako blokeoak aukerak murriztu zituelako eta ezker abertzaleak berak ez zuelako ulertu halako prozesu batek inbestitze askoz handiagoa eskatzen zue-la. ETaren erabakiak egoera sakonki aldatu zuen eta au-

kerak eskaini, baina bere horretan ez zuen prozesu egi-turatu bat ekarriko. Horretarako, esan bezala, oinarria eta baldintza berriak erein behar ziren. Eta seguru asko ezker abertzaleak berak betiko egiteko moduak errotue-giak zituen oraindik.

Abiapuntua jartzeko eta burujabetzaren prozesuaren babesa zabaltzeko lezioa eman dute Katalunian. Adie-razgarria izan da, esate baterako, desobedientziaren faktorea nola kudeatu duten, aldi berean, legalitateak eskaintzen zizkien baliabideak aprobetxatuz. Desobe-dientzia eraginkorra, herri babesean oinarrituta; eta le-galitatearen eremuan “foru pasea” moduko bat: onar-tzen da, baina ez da betetzen. Horrela ez zuten Mossos d'Esquadra poliziaren kontrola galdu, eta, antza, hori erabakigarria izan zen bozketa egunean.

Azken hamarkadatan, ez gara inoiz katalanak bezain urruti iritsi, ezta hurbildu ere. Ez Algerren, ez Lizarran, ez Ibarretxe Planarekin, ez... Hain urruti iritsi dira, Estatuak muturreko mehatxua egin diela

Aurrera begirako lezioak ere uzten ari dira, eta ez de-nak baitezpada goxo-goxoak. Honaino iritsi dira, izuga-rria izan da, baina, halere, erronka gogorra dute orain-dik. Zer ez ote dugu izango euskaldunok? Azken hamarkadatan, ez gara inoiz katalanak bezain urruti iri-tsi, ezta hurbildu ere. Ez Algerren, ez Lizarran, ez Ibarre-txe Planarekin, ez... Hain urruti iritsi dira, Estatuak mu-turreko mehatxua egin diela, beldurraren efektua dantzan jartzeko. Eta beldurrak eragina du jendartean, ez zalantzarik izan. Esan bezala, oraindik asko dute egi-teko Kataluniako prozesuan. Hori bai, igandean lortu zuten aurrera segitzeko bermea, egon daitekeen berme-rik onena: herri borondatea. •